

BIZIKLETAZ  
*seguru*  
JOKATU

BIZIKLETAZ  
*seguru*  
JOKATU



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

## AHOLKU OROKORRAK

Iruñeko Udalak hirian garapen iraunkorreko mugikortasunaren aldeko apustua egin du, eta horretarako lehen-tasuna eman nahi die oinezkoei eta bizikletei.

Gero eta jende gehiago animatzen ari da bizikleta erabiltzera; izan ere, ingurumenaren aldetik jasagarria izateaz gain, osasunerako onuragarria da.

Hirian badira joan-etorriak egiteko modu ezberdinak, eta, hori dela-eta, beharrezkoa da oinarriko arau batzuk ezartzea bizikidetzaren hobetzeko eta oinezkoen eta bizikletarien osotasun fisikoa bermatzeko.

Horregatik, liburuxka hau irakurri eta bertan azaltzen diren gomendioak betetzeko gonbita egiten dizugu, eta, zalantzarik izanez gero, Udalean galdetu eta informazioa eskatzeko ere. [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)

**Bizikleta** hirian ibiltzeko **garraiobide azkar, merke eta eraginkorra** da. Hala ere, bizikletan ibiltzen hasi baino lehen ez ahaztu honako gomendio hauek:

- ★ Badira bizikleta mota ezberdinak. **Hirian ibiltzeko egokiena bizikleta hibridoa edo hirikoa da.**
- ★ Iruñean badira bizikletaz ibiltzeko leku ugari. Irten baino lehen, **azter ezazu zein duzun biderik egoki eta segurua.**
- ★ **Begiratu zure bizikleta ongi dagoen**, batez ere balaztak, gurpilak, argiak, eskulekua eta katea.
- ★ **Kaskoa ongi loturik eta estututa** eraman. Gomendatzen da, baita ere, eskularruak eta arropa erosoak erabiltzea.
- ★ Gauzez ibili behar baduzu, **erabili itzazu aurreko eta atzeko argiak**, eta jantzi islatzaileraren bat.
- ★ Erabil itzazu **bizikleten aparkalekuak**. Kasu egin seinaleei; batzuk bideoz zainduta daude. Bizikleten erregistro-zerbitzu bat ere badago, lapurreten kontrako sistemarekin.
- ★ Alkoholarekin eraginpean baldin bazaude, ez ibili bizikletaz.

## GALTZADAN IBILTZEAN

- Bizikletak galtzadan ibil daitezke, eta gainerako ibilgailuen parekotasun hartzaren dira.
- ★ Bizikletek gainerako ibilgailuen **zirkulazio-arauak errespetatu behar dituzte**: semaforoak, stopak, pasatzen uzteko seinaleak...
- ★ **Biraketaren** bat egin behar duzunean, alde aurretik adierazi, batez ere errotondetan, ezker edo eskuin besoa horizontalki luzatuz.
- ★ Errei bat baino gehiago baldin badago, **eskuinekotik** ibili beti, eta erreie barrutik, **eskuineko aldean**. Kontuz ibili izan daitezkeen maniobrekin, eta adi aparkatuta dauden autoak irekitzen direnean.
- ★ Gainerako ibilgailuekiko **segurtasun-tartea** zaindu, eta ez ibili, inolaz ere, entzungailuak jarrita.

## BIZIKLETA-BIDEETAN IBILTZEAN

- Bizikleta-bideak zirkulaziotik eta oinezkoen bidetik bereizita daude, zoladura ezberdin batez, beste maila batean jarrita edo bereizteko elementuekin. **Bide horiek bizikleta, patin eta gurpildun aulkiendako daude erreserbatuak. Gomendioak:**
- ★ Zentzuzko abiaduran ibili behar duzu, **inoiz ez 20 km orduko abiadan baino gehiago**.
- ★ Seinaleei begiratu, eta **kasu egin bidegurutzeei**, oinezkoen pasabideei, autobus geltokiei, ibiei eta edukiontzien eremuak.

## BIZIKLETA-ESPALOIETAN IBILTZEAN

- Seinaleztaturako (lerro eten bakar batekin edo metalezko xaflekin) espaloietan baino ezin da ibili bizikletaz, eta, betiere, honako arau hauek betez:
- ★ Ez ibili **10 km orduko baino abiadura handiagoan**, eta errespetatu, beti, **oinezkoek duten lehentasuna** espaloietan osoan.
- ★ **Oinezkoekin metro bateko distantzia gorde behar da. Espazio nahikorik ez badago, bizikletatik jaitsi eta eskuetan eraman.**
- ★ Kontu handiz ibili izkinetan, atarrietan, garajeen ibietan, autobus geltokietan eta edukiontzien eremuetan.
- ★ **Oinezkoengandik hurbil pasatzean**, txirrinarekin ohartarazi.
- ★ **Espaloia ez badago seinaleztatuta, oinez joan behar duzu, bizikleta eskuan hartuta**. Gogoan izan galtzadan ibil daitezkeela beti.

## OINEZKOENDAKO EREMUAK, PARKEAK ETA IBAI-PASEALEKUAK

- Eremu horietan bizikletaz ibil daitezke seinaleztaturako espaloietan bezala, oinezkoek duten lehentasuna errespetatuz eta, gehienez ere, **10 km orduko abiaduran**.



## GALTZADAK OINEZKO PASABIDEETAN EDO BIZIKLETEN PASABIDEETAN GURUTZATZEAN:

Galtzada gurutzatzerakoan, bizikleta gutziz gelditu behar da, oina lurrean jarri eta autoek ikusten gaituztela eta gelditzen direla ziurtatu. Gomendagarria da bizikleta eskutan duzula gurutzatzea, edozein ezustekoren aurrean errazago erreakzionatzeko aukera ematen baitu.

**Oso arriskutsua da, eta istripu asko eragiten ditu, galtzada gurutzatzea bizikleta gutziz gelditu gabe.** Seinaleztatu gabeko espaloietan batetik gurutzatuz gero, bizikleta eskutan duzula jarraitu beharko duzu.